

Ez dadila haria eten

**Itzea Urkizu
Arsuaga**

Epikotasunari saltzen gatzazkio halakoetan, eta hiztegiko sarre-
ra arruntak letra lodiz irudika-
tzen ditu epikazalearen lumak.
Lerrootatik, beraz, aitor dezadan epika
horri tanta bat edo beste kentzera noa-
la jarraian: negar egin dudala, alegia,
Berri Txarrak taldeak bere ibilbidea
etengo duela jakitean.

Nerabea zirudien fan sentimenduak.
Nerabea, discmanean *play-pause* joko-
an aritzeak, talde kuttunaren hitzak le-
tra kuttunen koadernoan txukun
apuntatzeko. Nerabea zen unibertsitate
garaia eta, nerabea, gela berean egona-
gatik, norbere jainko ateoari miresme-

na azaltzeko lotsa. Tira, sekula ez dugu
plazandre bokaziorik izan; batzuk, beti
nerabe.

Eta, paradoxikoki, zahartzen. Beti
besteren ahotan entzundakoak guk
geuk kontatuko dizkiegulako ondoren-
goei, Ez Dok Amairuren saio erdiklan-
destinoak edo Negu Gorriaken azken
kontzertua nola. Kontatuko diegu nola
aldatu garen, den mundua. Nola,
2003an, «ondokoak baino mugikor txi-
kiago bat» izatea zen, ezarritako arra-
kastara bidea. Nola jarri diogun aurpe-
gi gaurkotua, “Aspaldian utzitako
zelda”-ren hitzen egileari. Nola pentsa-
razi dezaketen lau akordek, testu libu-

ru zenbaitek baino luzeago. Nola, Iba-
rrako Gaztetxean, lehen lerroan, be-
laun-azpiak ubelduz gurtu gen(it)ue-
na(k), txalotu genituen, 2018ko
martxoan, makrokontzertu batean. No-
la izan zaitezkeen makro, euskaraz. Eta,
nola, den-dena ere ez den aldatzen eta,
eskola-ordu hiletan bezala jarraitzen
dudan, abesti zati miresgarriak etxeko
horman berridazten.

Dei nazakete nostalgiko, eta dei die-
zadatela; ederra da iragandako pozak
min ematea. Noizbait, datozen hilabe-
teak ere bilaka daitezela nostalgia. Eta
ez dadila sekula haria eten; epikoa izan
da. Ikusi arte. •

Talkaren talkaz arrakalak sortzen

Koldo Sagasti

Lehengo larunbatetik esparru as-
ke berri bat dago Gasteizen. Talka
izenez bataiatu du proiektua Za-
patari kalean Alava-Velascota-
rren jauregia okupatu duen emakume
taldeak. Ekintzaileek iragarri zutenek,
Talkak aurrez aurre jo nahi du patriarka-
tu, kolonialismo eta kapitalismoaren za-
palkuntza pairatzera kondenatzen di-
tuen sistema, talkaren talkaz sistema
horretan arrakalak sortzeraino.

Halaber, hamarkadetan utzitako etxe-
tzarrean esparru segurua eskaini nahi
diete babes beharrean dauden andreei;
alternatiba erreal bat, eguneroko gerta-

kariak erakusten duten bezala, beldu-
rrez ibiltzeko zama ezartzen dien siste-
maren aurrean.

Ikusteko dago zertan geratzen den
ekimena. Legez, ezin dituzte okupatzai-
leak kaleratu, jabearen salaketarik edota
epailearen ebazpenik izan ezean. Hala
ere, alkateak okupazioa arbuiatzen duen
adierazpen instituzionala bultzatzeko
saiakera egin du; alferrik, mozioak PNV
eta PSEren boza baino ez baitu lortu.

Nolanahi ere, ekimena bultzatu duten
andre ausartek dagoeneko lortu dute
agintarien utzikeria agerian uztea. Utzi-
keria hirigintzaren ikuspegitik, 2006an

Alderdi Popularra Udal Gobernuako agin-
tean zegoela enpresari talde batek erai-
kina espekulatzeko asmotan eskuratu
zuenetik, alferrik galtzen utzi dutelako
infekzio foku bilakatzeraino, eta horren
aurrean okurritu zaien alternatiba baka-
rra ateak eta leihoak adreiluz ixtea izan
delako. Eta, larriagoa dena, utzikeria gi-
za eskubideen ikuspegitik; egun esangu-
ratsuetan paparrean lazo morea jarria-
gatik edota indarkeriaren aurkako
gaitzespen instituzional hutsalak egina-
gatik, oraindik ere emakumeek babestu-
ta sentituko diren esparru baten beha-
rra dutelako. •